



2019ko AZAROA

187

# txi kitto!



**SAN ANDRESAK  
ATE JOKA**





Euskara Elkartea

### Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkartea  
Urkizu, 11 - solairuartera.  
20600 Eibar  
Tel: 943 206776.

### Erredakzio kontseilua

Maidar Aranberri,  
Ana Aizpurua,  
Ekhi Belar eta  
Eibarko ikastetxeak.

### Administrazioa

Marisol Uriarte.

### Erredakzioa

Maidar Aranberri eta  
Ekhi Belar.

### Maketazioa

Ana Aizpurua.

### Azaleko argazkia

Malen Illarramendi

### Copyright-a

Txikitto!

### Lege-gordailua


SS-1111/96



Gipuzkoako Foru Aldundia



- Aizu, zer ordu da?
- Hamabiak.
- Oi ze berandu!!
- Ba hurrenguan galdetu lehenago!



Gizon bat medikuarengana joan zen eta esan zion:

- Mediku jauna, arazo bat daukat. Nire puzkerrek ez dute usainik.
- Hori ez da posible. Bota ezazu bat oraintxe bertan!
- Ppppprrrrrrrrrrrr!
- Hori larria da. Ebakuntza behar duzu.
- Ipurdian? -
- Ez, gizona, sudurrean.



Irakasleak Jaimitori esaten dio:

- Zuzendaria hona etortzen denean hiru galdera egingo dizkizu: "Zenbat urte dituzu?" Eta zuk esango duzu: Hamar. "Zenbat urte daramazu ikastolan ikasten?" Eta zuk esango duzu: Bi. "Zer gustatzen zaizu gehiago, matematika edo hizkuntza?" Eta zuk esango duzu: Biak. Kontuz, ez zaitez okertu. Zuzendaria iristen denean Jaimitori galdetzen dio:
- Zenbat urte daramazu ikastolan ikasten?
- Hamar
- Zenbat urte dituzu?
- Bi
- E, mutiko! Tonto aurpegia ikusi al didazu edo nahi didazu adarra jo?
- Biak.



- Aizu psikiatrikoa al da hori?

- Ez, gizona, ez! Oker markatu duzu: guk ez dugu telefonorik!



Dragoi batek esaten dio iratxo bati:

- Hegalak ditut baina ez dakit hegan egiten! Iratxoak erantzuten dio:

- Ba nik ez ditut eta lurreratzen badakit.



Zertan dira ezberdinak arkakusoa eta elefantea?

- Ba... elefanteak izan ditzake arkakusoak baina arkakusoak elefanterik ez.




## bitxiki keriak



LEHOI HELDU  
BATEN ORROA 8  
KILOMETROKO  
DISTANTZIARA  
ENTZUN DAITEKE

JIRAFEK  
MINGAINAREKIN  
GARBI DITZAKETE  
EUREN BELARRIAK



LIBELULAK EZ  
DIRA 24 ORDU  
BAINO GEHIAGO  
BIZITZEN



MARRAZO BATEN  
HAURDUNALDIAK  
4 URTE IRAUTEN  
DU



ARMIARMEK 8 BEGI  
IZAN ARREN, EZ  
DUTE OSO ONDO  
IKUSTEN

# Denborapasak




## 7 desbedintasunak



## Hizki zopa

U	R	D	i	N	A	M
X	L	H	O	B	Q	A
M	J	M	M	F	K	R
M	O	U	N	L	B	R
E	U	R	D	T	E	O
B	i	z	E	z	R	i
R	D	X	F	A	D	A
H	O	R	i	A	E	E
G	O	R	R	i	A	R
G	R	i	S	A	R	J
L	A	R	R	O	S	A

KOLOREAK:  
GORRIA,  
BELTRA,  
LARROSA,  
BERDEA,  
URDINA,  
MOREA,  
MARDOIA,  
HORIA,  
GRISA.




## Fruten gurutzegrama

FRUTAK  
ALDE BATETIK  
BESTERA

- MELOKOTOIA
- SANDIA
- MADARIA
- MANDARINA
- PLATANOA

GOITIK BEHERA

- LARANJA
- MARRUBIA
- SAGARRA
- KIWIA



## Osatu izenak

1. DMDAI      6. EBILK

2. IRMNE      7. ENA

3. ALINEA      8. BOLEN

4. OJEAN      10. LNDARE

5. HANEQI      11. ORAN



## Sudokua

1				4
	4		1	
2				5
	5		2	
3				6
	6		3	



# Lehiaketa

## 7 desberdintasunak



Bidali erantzunak **abenduak 3** baino lehen  
...eta kitto! Euskara Elkarte- Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak.....

Adina..... Tel. ....



Pozik hartu zuen bere saria  
Maialenek

### Aurreko hileko irabazlea, Maialen Barruetabeña

Zorionak Maialen! Aurreko aleko erantzunak bikain asmatu dituzu eta zozketan zeu irten zara irabazle. Ipuina eta ...eta kitto!-ko kamiseta zuretako! ZORIONAK txapeldun!

# Datozen asteotan zer dugu egiteko?

Ekintza ugari antolatu dira Eibarren datozen egunotarako, haur zein helduentzat, eta ez duzue aspertzeko ia tarterik izango.

Zapatu honetatik hasita, azaroak 23, arratsaldeko 18:00etan **“Haurrak, zertan ari zarete?”** izeneko **ipuin-kontalaria** izango da, Ixabel Agirresaroberen eskutik. Haurren Eskubideen Aldeko Eguna ospatzeko ekitaldia umeen liburutegian egingo da, eta 3 urtetik gorako umeentzako izango da.


Handik gutxira iritsiko dira **San Andres jaiak!** Bertsozaleak bazarete, domekan, azaroak 24, hitzordu polita duzue, **San Andres Bertso Jaialdian**. 18:30etatik aurrera Maddalen Arzallus, Aitor Sarriegi, Unai Iturriaga eta Onintza Enbeita bertsolariak jardungo dute Portalean.

Eta azaroaren 30ean, **San Andres Eguna!** Goizean goiz zabalduko ditu ateak **XLI. Azokak**, eta hortik aurrera, ganadua, barazkiak, **bikotekako aikozlarien txapelketa**, **trikitilariak**, **bertsolariak**, **erromeria**, **musika-kontzertuak...** Gelditu gabe ibiltzeko moduko eguna izango dugu eibartarrok!

Abendua, berriz, urteroko moduan, **Euskararen Egunarekin** hasiko dugu, badakizue, abenduaren 3an ospatzen dugu. Goiz eta arratsaldeko egitaraua prestatu dute Untzagan. Goizean, eta eguraldiak laguntzen badu, Haur Hezkuntzako ikasleek **dantza-emanaldia** eskainiko dute 11:00etan hasita, eta arratsaldeko lehenengo orduan, berriz, 15:00etatik aurrera, Lehen Hezkuntzako txanda izango da.

Iluntzean, bestalde, jaiak **armiarma-sare** itxura hartuko du; izan ere, 18:00etatik aurrera sareak osatzeko aukera izango dute bertaratzen diren guztiek. Koloretako **artile-matazak** erabiliz osatuko dira euskararen armiarma-sareak. Badakigu, zuek eskoletan ere egingo dituzuela, eta beraz, pozarren jasoko ditugu zuen argazkiak!

Aprobetxatu, beraz, hurrengo egunak eta ondo ospatu!





**Zenbat kontu dituzte kontatzeko gure aitxitxa-amamek! Hain justu horretarako sortu dugu atal berri hau, gure nagusiekin berbetan jarduteko, eta eurei buruz gauza gehiago jakiteko. Horretarako, hilero, aitxitxa edo amama bat eta haren biloba aurrez aurre jarriko ditugu. Gaztetxoek elkarrizketa egingo diete nagusiei.**



Joserrak gauza asko ditu kontatzeko eta bere iloba Ametzek arreta handiz entzuten dio. 9 urte ditu Ametzek eta 69 bere aitxitxak, Joserrak. Zenbat ikasi dugun eurekin!

**“Foballean beti galtzen genuen,  
baina dotoreenak ginen”**



### - Nolakoa zen zuen eskola? Zer egiten zenuten?

Eskolan gazteleraz egiten genuen eta Espainiari buruzko gauzak ikasten genituen bakarrik (historia, errekak, mendiak...). Gero, ez nekien Donostiatik zein erreka pasatzen zen ere. Irakasle bat jatorra zen, Gabiriakoa, baina Palentziako beste irakasle bat genuen, falangista, eta domekero elizara joatera behartzen gintuen. Bestela, zigorra jasotzen genuen. Ni ez nintzen elizara joaten eta ez nuen ezer esaten. "Ea, Gomez (abizenarekin deitzen ziguten), zelan zegoen jantzita abadea mezetan?", galdetzen zidaten, eta beti konturatzen ziren ez nintzela joan.

### - Nola moldatzen zineten eskolan ordenagailu barik?

Liburu bitartez ikasten genuen. Nik lanean ikasi nuen ordenagailua erabiltzen, baina eskolan ez genuen horrelakorik. Gauzak buruz ikasten genituen, mila aldiz irakurri ondoren.

### - Zelan pasatzen zenuten aisialdia?

Internetik ez zegoenez, kalean ibiltzen ginen denbora osoan. Bizitzeko modu aberatsagoa eta politagoa zela uste dut. Txaltxa Zelaian oso etxe

gutxi zegoen, dena zelaia zen, eta Urkin obrak egiten hasi zirenean egurrak hartzen genituen txabola egiteko. Gero, euria ari zuenean, zirkoa antolatzen genuen txabolan eta sarrera kobratzen genuen.

### - Eta foballean egiten zenuten?

Bai, Txaltxa Zelaian. 'Txapela' izena zuen gure taldeak eta barruko kamisetarekin jokatzeko genuen. 10 urterekin aitari galdetu nion zein ote zen Espainiako kirol-zuzendaria eta Jose Antonio Elola Olaso zen. Orduan, eskutitz bat idatzi nion kamisetarik ez genuela esanez, eta 11 kamiseta eta 11 fraka bidali zizkigun doan. Beti galtzen genuen, baina dotoreenak ginen.

### - Oporretan joaten zinen udan?

Nire aitak Alfan egiten zuen lan eta Alfak udalekua zuen Ondarroan, Alfako langileen seme-alabentzat. Neskak eta mutilak norbere aldetik joaten ginen, hilabete bakoitza. 10, 11 eta 12 urterekin joan nintzen hara, hiru urtetan. Hondartzan egoten ginen beti. Egun batean, bihurria nintzenez, kai-muturretik salto egin nuen eta ebaketa egin nuen hankan. 15 egun postre barik utzi ninduten, zigortuta, eta ezin nintzen bainatu ere egin. Nahiago nuen etxera itzuli.

### - Kotxerik zenuten etxean?

13 urterekin lehengusu batek bizikleta oparitu zidan eta horrela mugitzen nintzen. Nire lagunek bizikleta alokatzen zuten eta Debara joaten ginen hondartzara. Etxean ez zuten jakiten joaten ginenik. 18 urterekin lehengusu berak motorra oparitu zidan, Lambretta bat, eta motorrean ibili nintzen urte askoan. Gero, beste lehengusu batek kotxea oparitu zidan.

### - Noiz sartu zen telebista zuen etxean?

16 edo 17 urte nituenean. Eibarren Helmholtz izeneko telebistak egiten ziren eta bat erosi genuen, zuri-beltzekoa.

### - Zelan moldatzen zara teknologia berriekin?

Ordenagailuan ibiltzea gustatzen zait. Egunkaria irakurtzen dut, foballa ikusten dut...





## URKIZU

Urkizuko 5. mailako ikasleak Kanpezura egin zuten irteera urria amaieran. Amurrainen arrain-haztegia bisitatu zuten eta arrantzan ere egin zuten. Hori pagotxa, hori! 5. mailakoak ez dira geldirik egotekoak eta Kanpezutik itzuli eta gutxira laborategian sartu eta dentsitateari buruzko esperimenduak egin zituzten. Zientzialariak izango ote dira nagusitan? 4. mailakoak ere hor ibili dira, ausart-ausart, laborategian, animalia desberdinen bihotza, birikak eta gibela aztertzen. Eta ez zen inor zorabiatu, aizu!



## ARRATEKO ANDRA MARI

Urriaren 30etik azaroaren 8ra arte, Euskararen Baloia gure eskolako sarreran izan dugu, Arrateko Andra Marin, eta azaroaren 4an Eibar taldeko Anaitz Arbillaren bisita izan genuen!! Azaroaren 15ean 6. mailakoak udal-liburutegira joan ziren "Liburuen artean" formakuntza-tailerra jasotzera. 20 eta 21ean, 4. eta 6. mailakoek Kontsumobide tailerrak egin zituzten eskolan bertan, eta azaroaren 29an San Andres azoka izango dugu. Ikasle, irakasle eta guraso, denok elkarrekin egunaz gozatzeko tarte polita izango dugu. Mila esker beti laguntzako prest dauden gurasoiei!



## ALDATZE

Orkestra sinfonikoa ezagutzen!  
Aldatzeko 2. eta 3. mailako ikasleok orkestra sinfonikoa ezagutu dugu! Zein instrumentuk parte hartzen duten, zein familiatakoak diren eta non kokatzen diren. Euskal Orkestra Sinfonikoa ere aztertu dugu eta entzunaldi zoragarriak egin ditugu gure artisten elkarlanak ezagutzuz, besteak beste, Zea Mays-ekoekin. Askok gozatu dugu orkestra sinfonikoarekin!



## LA SALLE

Urriaren 23an Euskararen baloia La Salle ikastetxera astebeterako heldu zen. Patioan Iñaki Bea eta Marta Lopez de Gereñorekin elkarrizketatu ondoren, gure jolasetan ere euskara erabiliko genuela argi utzi genuen! 3. mailakoak, berriz, Donostiako Aquariumera joan dira hilaren 28an. Nortzuk beldurtu dira gehiago, ikasleak eta marrazoak?





## SAN ANDRES

Irailean, opor bueltan, baratzean lan pilo bat egiteko zegoela ikusi genuen San Andres ikastetxean. Udaberrian erein eta landatu genituen barazkiak, bi hilabete igaro ondoren landareak barazkiz beteta zeuden eta uzta biltzeko prest zegoen: piperrak, gindillak, porruak, erremolatxa, tomaketxoak...  
Aurten 2. mailako ikasleak arituko dira ortuan. Dagoeneko hasi dira bankaletako lurra prestatzen eta barazki berriak landatzen.



## ITURBURU


Gianni Rodari idazle italiar haundia ezagutu dugu Iturburun eta haren inguruan hainbat ekintza burutu ditugu. Adibidez “Telefonozko ipuinak” entzun ditugu 60. hamarkadako benetako telefono bat erabiliz. Oso dibertigarria izan da ipuinak modu horretan entzutea. Gure gorputzekin “Rodari” hitzaren letrak egin ditugu lehenengo zikloan. Bestalde “Gaztainerre” ere ospatu dugu. Argitxo etorri zaigu oraingoan ere eskolara eta erronka berri bat proposatu digu euskara zaintzeko: bost litroko ur bidoi handietan oparitxo bat izango dugu, baina bidoi horietan ez dago urik. Egunero andereñoek bete beharko dituzte oparitxoa gorutz-gorutz joateko, azkenean hartu ahal izateko. Baina, gazteleraz entzunez gero andereñoek ez dute ura bidoietan botako baizik eta edan egingo dute, eta ondorioz oparitxoa ezin izango da eskuratu... Ederra erronka Argitxo! Zu bai zu! Ahoa bizi-bizi, belarria prest beti, brinko eta brinko euskaraz!



## AMAÑA

GAZTAINERRE eguna ospatu genuen Amañan. Abestu, herri-kiroletan aritu eta gaztainak jan genituen. Arratsalde eder bat pasatzeaz gain, Eibarko ohitura zaharrei eustea izan zen gure helburua; eta lortu genuen! Eskerrik asko sukaldari, antolatzaile eta ikasleei!





ni bai artista!


## Kanika-arrapala



Ez aspertzeko moduko jolasa egiteko proposamenarekin nator! Dibertigarria eta erraza egitekoa!

### Zer behar dugu:

- Komuneko paperaren barruko kartoia
- Egurrezko taula
- Kanikak
- Txintxetak
- Edalontzi bat



### Zer egin behar dugu:

Moztu kartoizko roiloak erditik eta zuek nahi duzuen neurrian. Zuen labirintoa politagoa izan dadin, kartoiz zatiak margotu ditzakezue.

Itsatsi kartoiz zatiak txintxetekin, baina kontuan izan kartoiei inklinazio egokia eman beharko diezuela kanika batetik bestera erortzeko.

Zuen ibilbidea ondo egiten baduzu, kanika edalontzira jausiko da, eta ez lurrera!

## Ahuakatez betetako arrautzak



sukal-saltsan

Egosi arrautzak, erditik moztu, atera goringoa eta ontzi batean gorde.

Moztu ahuakatea erditik, zuritu, kendu hezurra eta nahastu goringoarekin.

Limoi-zukua, berakatz-hautsa eta gatza gehitu eta nahastu dena ondo sardexka batekin. Bete arrautza erdiak masa horrekin, nahi izanez gero piperrautsa bota eta zerbitzatu hotzak.





**AMAÑAKO 5. MAILAKO IKASLEAK ODOL-EMAILEEN INGURUKO LANKETA EGITEN DIHARDUTE ETA GIZA GORPUTZA IKASTEKO APROBETXATU DUTE. ESKOLAN GALDEKETA EGIN DUTE, GRAFIKOAK EGIN DITUZTE ETA GORPUTZEKO ATALAK IRUDIKATU DITUZTE MATERIAL EZBERDINAK ERABILIZ.**

## Zer ikasi duzue odol-emaileen gaia lantzerakoan?



**LAMIAA MASLOHI,**  
10 urte

Klasean lau talde egin ditugu arnas-sistema, digestio-sistema, iraitz-sistema eta zirkulazio-sistema aztertzeko. Nire taldeak arnas-sistema lantzen dihardu. Maketa eta marrazki bana egin ditugu. Gero, taldekide bakoitzak materiala ekarri du arnas-sistema irudikatzeko. Nik globoak, lastotxoak eta kartoia ekarri nituen faringea, esofagoa eta birrikak egiteko.



**NURIA LORENZO,**  
10 urte

Lehenik eta behin eskolako gela guztietan galdeketa egin genuen ikasle bakoitzaren familian odol-emailerik dagoen edo ez jakiteko. Gero, datuekin grafiko bat egin genuen. Gorputzeko sistemak lantzeko balio izan digu eta niri arnas-sistema lantzea tokatu zait. Nik kartoia eta margoak ekarri ditut, eta Haur Hezkuntzako geletan pintzelak eta plastilina hartu ditugu.



**JUNE PERIBAÑEZ,**  
9 urte

Nire familian ez dago odol-emailerik, baina garrantzitsua iruditzen zait odol-emaileak egotea, gaixo dauden batzuek odola behar dutelako. Nire taldeak digestio-sistema landu du. Kartulinarekin heste-lodia egin dugu, temperarekin heste-meharra, eta plastilinarekin urdaila eta gibela. Bideoak eta liburuak ikusi ditugu organoak nola egin jakiteko. Gero, galdeketa jasotako datuekin hiru grafiko mota egin ditugu: kopuruak jasotzen dituen, portzentajeen grafikoa eta gazta itxurakoa.



**ZAINAB BIBI,**  
10 urte

Plastikako klasean gorputzeko sistemen maketak egin ditugu, eta plastilina, margoak eta haria erabili ditugu horretarako gure taldean. Pixka bat zaila izan da, haria kolarekin itsatsi behar genuelako. Barixaku arratsaldetan egiten dugu lan hau eta nahiko entretenigarria izaten da. Gainera, kartulina baten gure gorputzak jarri eta gure gorputzaren inguruan gorputzaren profila marraztu dugu.




**SELENE DE LOS REYES,**  
10 urte

Gure taldeak iraitz-sistema landu du eta horrela irudikatu dugu: zainak eta arteriak lastotxo eta plastilinarekin, giltzurrunak puxikekin eta bagina plastilinarekin. Talde bakoitzak landu duen sistemaz gain, beste sistemak ikasteko azterketak egiten ditugu astero. Bestetik, odol-emailea izateko informazioa jaso dugu eskola guztian kartelak jartzeko: odola non eman behar den, zein baldintza bete behar diren, eta abar.



**UNAI RUIZ,**  
10 urte

Nik iraitz-sistema lantzen dihardut. Nahiago nuen arnas-sistema lantzea, baina bozketa egin genuen taldean eta iraitz-sistema aukeratu zuen gehiengoak. Nik lastotxoak, zotzak eta puxika ekarri nituen. Ez dut odol-emailerik ezagutzen, baina eskolan galdeketa egin genuen gure inguruan zenbat odol-emaile dauden jakiteko. Gero, grafiko bat egin genuen emaitzekin eta ikusi dugu gure klasean dagoela odol-emaile gehien.



# zer irakurri

Juan San Martin Liiburutegia



## Gora koloretako azazkalak! 6 urtetik aurrera

Joni ikaragarri gustatzen zitzaion azazkalak margotzea, eskolan iseka egiten hasi zitzaizkion arte. Egun berean erabaki zuen aitak berak ere azazkalak margotzea.



## Astindu gorputzak! 8 urtetik aurrera

Gu gara marimatrakak,  
iji eta aja,  
barre eta zalaparta,  
neska pare aparta



## Martetarrak datoz! 10 urtetik aurrera

Pantxok, Josezerrek eta Tebanek herriko bi emakumeri martetarren bisita izango dutela esaten entzun diete. 8 urteko edozein umek dakien bezala, horrek esan nahi du inbaditu egingo dituztela. Herria eta mundua salbatzeko, lagunarteko ongi etorria prestatzea erabaki dute, estralurtarrak lasaitzeko.

## Kongito, kongito (Aldatze ikastetxea)

### ZELAN JOLASTU?

Aldatze ikastetxeko ikasleek 'Kongito, kongito' jolasa aurkeztu digute eta oso erraza da! 'Kongito, kongito' abestia kantatuz sokan salto egin beharko dugu eta abestian esaten dena egin, besterik ez! Ah beno, bai, ondo pasatzea besterik ez zaigu falta!

## jolastokixan jolasian



### BIDEOA:

<https://etakitto.eus/txikitto/aldatze-3.html>





ipuin

# Ahizpa biki tik-tok-errak

Baziren behin ahizpa biki batzuk Tik-Tok-ak egitea gustoko zutenak. Sare sozial horretan oso famatuak ziren, baina egun batean, bideo desegoki bat grabatu eta igo egin zuten.

Berehala konturatu ziren jendea ez zitzaiola bideoa gustatu eta jarraitzaile asko galdu zutela.

Orduan, hori ihusterakoan, bikiak beraien artean haserretu ziren eta hitz itsusiak esaten hasi ziren:

-Zeure errua izan da, zuek esan zenidan bideoa igotzeko!- esan zuen batek.

-Eta zergatik egin zenidan kasu?- erantzun zion beste ahizpak.

Horrela bi egun pasatu zituzten bata besteari hitz egin gabe, baina azkenean konpromise bat

aurkitu zuten:

-Ideia bat daukat- esan zuen ahizpa batek

-Ze ideia?- galdetu zion beste ahizpak.

-Beste bideo bat grabatu ahal dugu non ehatzen diegun barkamena denei.

-Oso ideia ona!

Orduan bideoa egiten hasi ziren:


-Kaixo gu gara berriz eta barkamena ehatu nahi dizuegu aurreko egunean egindakoagatik. Ez genuen pentsatu zer egiten ari ginen eta espero dugu zuek barkatzea, Barkatu!!!

Hurrengo egunean jarraitzaile askoz gehiago izan zituzten eta aurrerantzean bideo bat igo baino lehen burua erabiltzen dute inori minik ez emateko.

**PENTSATU ONDO SARE SOZIALETARA ZERBAIT IGO BAINO LEHEN!!!!**

Maheen, Ane, Fatima eta Ixone





zu margolari